

ASOCIACIÓN PARA LA REVITALIZACIÓN DEL BILBAO METROPOLITANO
BILBAO METROPOLITARRA BIRBIZTEKO ELKARTEA

2017 Ekaina / 278 Zenbakia



BILBAO METROPOLI-30 ELKARTEAK AKTIBATU + PROGRAMAN PARTE HARTU DU

Bilbo Metropolitarraren Birbizteko Elkarteak Aktibatu + programan parte hartzen ari da, Bizkaiko Foru Aldundiaren ekimenez, ingurumenaren iraunkortasunaren alorrean herritarren parte-hartzea sustatzeko

asmoz. Programa Eusko Jaurlaritzarekin, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarekin, Metro Bilbaorekin, Iberdrolarekin, La Caixaren Gizarte Ekintzarekin eta Petronorrekina garatu dute elkarlanean.

Maiatzean, emakumeek zuzendutako enpresak indartzea helburu duten ANDREkintzailea programa-ko tailerrak hasi dira.

ANDREkintzailea programa

Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomia eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak emakumezko enpresariei zuzendutako ANDREkintzailea programa antolatzen du, emakumeek zuzendutako enpresak indartzen laguntzeko helburuz. Bilbao Metropoli 30ek koordinatutako programa da, eta Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkartearen (AED) eta EmakumeEkin elkartearen laguntza dauka programa garatzeko.



ANDREkintzailea urtebetean garatzen da, eta esperientziaren bidez honako alorrak lantzen dira: lidergoa, estrategia digitala, kudeaketa komertziala eta ekonomiko-finantzarioa eta sormena. Era berean, networkingerako guneak daude, eta erraztu egiten ditu coaching eta mentoring saioak. Arlo horretan, maiatzean hasi dira aipatutako programako tailerrak, eta BEAZen egiten dira.



Navotas (Filipinak) hiria

Bilbao Metropoli-30 elakrteak egin dio harrera Filipinetako Navotas hiriko alkateari, John Reynald Marcelo Tiangcori. Asiako hiritik Bilbora etorri den ordezkari-tza Navotasko Udalean kargu desberdinak dituzten zortzi pertsonak osatzen dute.

Filipinetako ordezkari-tzak Navotasen eraldaketa-prozesurako eredu gisa hartu nahi du Bilbo, hiritarren bizi-kalitatea hobetzeko eta hiri jasangarriago bat lortzeko asmoarekin. Navotasko udal-ordezkari-tza Bilbao Metropoli-30 elkartera bertaratu da, bertan, Bilbo Metropolitarrak Berpizteko Plana diseinatzeko eta ezartzeko jarraitutako estrategia ezagutu dute.

Navotas Manilako iparraldean kokatuta dago, Metro Manila izeneko eremuan. 250.000 biztanle ditu eta Filipinetako arrantzaren hiriburu gisa ezagutzen da; izan ere, biztanle gehienak arrantzari eta sektore horrekin zerikusia duten industriei lotuta daude.

Suediako Nacka hiria

Suediako Nacka hiriko alkateak eta udal ordezkariak bisitatuko dira Bizkaia maiatzak 9tik 12 arte Bilbao Metropolitarrak eraldaketa prozesua eta bere ingurumenean eragin ikas-teko interesatutak.

Ibone Bengoetxeak, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuak, eta Bilbao Metropoli-30 elkartearen zuzendari nagusiak egin diote harrera ordezkariari, Foru Jauregian. Azken horrek Bilbo metropolitarra biziberritzeko prozesuaren lankidetzaren eredu publiko-pribatua aurkeztu du, baita 2035 Estrategia ere. Era berean, Bilboko Portu Agintaritzak, Bilboko Udalak, Metro Bilbaok eta Zorrotzaurrek ere harrera egin diote.

Ulsan-go (Hego Korea) telebista elkarrizketa

UBC (Ulsan Broadcasting Corporation) kateak, Hego Koreako tokiko telebista kateak, elkarrizketa egin dio BM30eko zuzendari nagusiari.

Ulsan-go metropolialdeak milioi bat biztanle baino gehiago ditu, eta hiri-gintza eraldatzeko prozesu batean dago gaur egun, Bilbok azken 30 urteetan bizi izan duena bezalako, industria ekonomia izatetik zerbitzuen hiria izatera igarotzeko asmoz. Prozesu honen berri moduzuzenean izateko, telebista-kate honek elkarrizketak egingo ditu maiatzaren 15ean eta 16an; Bilbo-



ko alkateari eta Metro Bilbaoko arduradunari egingo zaie elkarrizketa.

Ulsan (Hego Korea)

Bilbao International-ekin elkarlanean, Bilbao Metropolitarra eraldatzeko prozesua ikasteko interesa duen Ulsan-go (Hego Korea) ordezkari batekin elkartuko gara.



Ordezkaritza maiatzaren 18an eta 19an dago Bilbon, Bilborengandik eta hiriak bizitako eraldaketatik ikasteko xedez; izan ere, antz handia dauka Ulsan hiriarekin. Azken horretan, bertako industria nagusiek geldialdi prozesua bizi dute, eta eraldatzeko modua bilatu behar du hiriak. Eraldaketako ardatz nagusietako bat hiria birbizteko eta lehengoratzeko prozesua da, horretarako Teahwa ibaia erabilia; izan ere, ingurumenaren lehengoratzearen adibidea da. Bilboren eraldaketa-prozesuak euren helburuekin antza duela uste dute (hiriko bizitza aktibatzea, ardatz nagusitzat ibaia erabilia).

Ulsan Hego Koreako hiri handien artean zazpigarrena da, eta aldaketa prozesu batean murgilduta dago; lehen, hiri industrialaren,

Bilbao Metropoli-30ek Bilbo Metropolitarraren aldaketa prozesua lehen eskutik ezagutzeko interesa duten ordezkariak eta pertsona taldeak jasotzen jarraitzen du.

Bilbao Metropoli-30 elkarteak Creativity LABekin batera sormenari buruzko workshop hau antolatu du: “Nola aldatu zure enpresako kultura, emaitza berritzaileak sustatzeko”.

eta, orain, enpresa teknologikoak bultzatzen dituen hiri bihurtzen ari da.

Sormenari buruzko workshopa

Bilbao Metropoli-30 elkarteak Creativity LABekin batera “Nola aldatu zure enpresaren kultura, emaitza berritzaileak sustatzeko” izeneko sormenari buruzko workshopa antolatu du 2017ko maiatzean BasquePRO proiektuaren barnean elkarteak garatzen dituen ekintza gisa.

Sormenari buruzko workshop horren helburua da enpresa eta erakundeetan emaitza berritzaileak lortzea eragingo duten aldaketa kulturalak sustatzea, beste leihakortasun eredu bat garatuz, proaktibitatea gehituz eta antolakuntza-aldaketara egokitzea erraztuz, ideia berriak sortu eta erabiltzearen bitartez.

Uniporteko Zuzendaritza Batzordea

Ekainaren 30ean egingo da Uniporteko Zuzendaritza Batzordearen bilera, eta 2017-2020 Plan Estrategikoa aurkeztuko dute bertan. Plan Estrategiko horretan, Bilbao Metropoli-30 elkarteko zuzendari nagusiak hartuko du parte.

Argentinako Enpresa Ertainen Konfederazioa

BM30eko bazkide sortzaile da Bilboko Udala, eta, haren Bilbao Internationalen eskariz, zuzendari nagusiak Argentinako Enpresa Ertainen Konfederazioaren (CAME) ordezkari bat jasotzen du. Konfederazioa elkarteek, merkataritza-guneek, federazioek, udalek eta abarrek osatzen dute, eta interesa dute ezagutzeko bai Bilbon ETEak babesteko dauden ekimenak eta programak zein Bilboren eraldaketa prozesua, elkarlan publiko-pribatuaren ikuspegitik.

WORKSHOP CREATIVIDAD:
Cómo transformar la cultura de tu empresa para potenciar resultados innovadores



The graphic features a pile of colorful string on the left, a glowing yellow lightbulb in the center, and the Bilbao Metropoli-30 logo and Creativity Lab logo on the right. Below the graphic, there is an orange bar with the text: 25-26 MAYO EN BILBAO and ZAIRALIFE COACHING ES/CURSOS/CREATIVITYLAB

Ordezkaritza 33 kidek osatzen dute, eta Bilbo bisitatzen dute Zazpi Kaleetako Merkatarien Elkartearen eskutik.

AKTIBATU + (Barakaldo)

Ingurumenaren arloko iraunkortasunaren alde herritarren parte-hartzea sustatzeko asmoz, Bizkaiko Foru Aldundiak Aktibatu + ekimena jarri du abian, Garbiker Sozietate Publikoarekin, Eusko Jaurlaritzarekin, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarekin, Bizkaiko Garraio Partzuergoarekin, Metro Bilbaorekin, Eroski taldearekin, Iberdrola, "La Caixa" Gizarte Ekintzarekin eta Petronorekin elkarlanean.



Nazio Batuek sustatutako Global Action Plan – Ekintza Plan Globala (GAP) nazioarteko programaren barnean kokatzen den ekimena da. Programa horrek pertsonen ohiturak aldatzeko ideia errazak eta ekintza praktikoak proposatzen ditu, ikuspegi positibo batetik beti. Helburua baliabideak eraginkortasun handiagoz erabiltzea eta planetan duten eragin kaltegarria apaltzea da, etxeko eta tokiko ekonomia sustatzearekin batera.

Aktibatu + programak familiek etxe-

an eta ikasleek ikastetxean aktiboki parte hartzea sustatu nahi du. Behin programa osatuta, gai hauei ekingo zaie: erosketa-hondakinak, ura, energia eta mugikortasuna.

Aktibatu + eskola-programaren amaiera-festa eta Jarraipen Batzordearen bilera egin ziren ekainaren 1ean Barakaldo Antzokian. Aktibatu + programan parte hartzen ari diren ikastetxeei zuzenduta, euren parte-hartzea aitortzeko ekitaldia ere egin zen.

Le Figaroren elkarrizketa

Elkartearen zuzendari nagusiak harrera egin dio Mathieu de Taillac Le Figaro egunkari frantziarrak Espainian duen berriemaileari. Kazetaria Bilbora etorri da, Guggenheim Bilbao Museoaren XX. urteurrenaren harira museoak hirian izan duen eragina zein izan den eta biztanleek museoak nola hartu duten kontatzeko prestatzen ari den artikulurako elkarrizketa batzuk egitera.



Erreportajearen helburua Bilbo eta ingurua birmoldatzeko prozesuan hasieratik parte hartu duten erakun-

Elkartearen zuzendari nagusiak harrera egin dio Mathieu de Taillac Le Figaro egunkariaren Espainiako berriemaileari, Guggenheim Bilbao Museoaren XX. urteurrenaren kariatara prestatzen ari den artikuluko bat dela-eta.

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Merkataritza Ganberak Idahora enpresen misio komertzial bat antolatzeari dagokionez, Elkar-teak harrera egin die Boise Metro Chamber of Commerce eta Boise Visitors and Convention Bureauri.



deen iritzia biltzea da, baita hiriaren garapenerako indarguneak zeintzuk izan diren jasotzea ere, eragile instituzionalen, ekonomikoen eta elkar-teen arteko interakzioa nabarmenduz; hain zuzen, hor agertzen da Bilbao Metropoli-30en ekarpena.

Seuleko Metropoliko Gobernu

Bilboko Udalaren Bilbao Internationalek proposatuta, zuzendaritza nagusiak Seuleko Metropoliko Gobernuaren ordezkari bat jasotzen du, haren zuzendari nagusia buru dutela. Interesa dute hiriaren eraldaketa-prozesua eta Elkar-tea ezagutzeko, baita Elkar-teen mekanismoak eta orain lantzen ari den estrategia ezagutzeko ere.

Interesa izatearen arrazoia honakoa da: Seul hiria hango Han ibaia leheneratzeko prozesuan murgilduta dago, eta gustatuko litzaike ezagutzea Bilboko ibaiaren lehenera-

tzea eta horretarako egin ziren proiektuak. Haien iritziz, Bilboren eraldaketa-prozesuak badauka eurek lortu nahi dutenarekin antzekotasunik (ibaiaren garbitasuna, eta ibaiertza aktibatzea kulturaren eta artearen bidez).

Idaho Misio komertziala

Bizkaiko Foru Aldundia, Bilboko Merkataritza Ganberarekin batera, Idahoko (AEB) enpresen Bizkairako misio komertziala antolatzen ari da. Ekainaren 13tik 15era egingo dute, lurraldeko enpreekin harremanak estutzeko eta elkarlanerako aukera gehiago bilatzeko helburuz.

Testuinguru horretan, eta Bilbao Metropoli-30en bazkide sortzailea den Bilboko Merkataritza Ganberaren eskariz, Elkar-teak harrera egingo die Boise Metro Chamber of Commerce eta Boise Visitors and Convention Bureauri.

governuko bazkide eta organoak

Ohiko eta Ezohiko Batzar Orokorra

Ekainaren 15ean egingo dira Elkar-teen Ohiko eta Ezohiko Batzar Orokorra. Besteak beste, gai hauek jorratuko dituzte: Elkar-teen eta haren gobernu-organoen jardunari

buruzko txostena, urteko memoria, 2016ko ekitaldiko balantzea eta aurrekontuaren likidazioa, eta 2017ko kudeaketa-plana. Gainera, "Bilbao Metropolitarrak 2035. Begirada etorkizunari" hausnarketa estratetikokoaren jarraipena egingo dute.

prentsa aldizkaria

Bilbao Metropoli-30 en web orrialdeko Prentsa Aretoan hurrengo albisteak irakur daitezke:

- Le Guggenheim, un pionnier de 20 ans. Le Figaro, 06-06-2017.
 - Una delegación bilbaina viaja a Ciudad del Cabo para hablar de sostenibilidad. Deia, 26-03-2017.
 - Premian el ahorro de energía de 247 alumnos en Barakaldo. El Correo, 02-06-2017.
 - 19 colegios bajan su consumo de energía. Deia, 02-06-2017.
 - Reconocidos 247 alumnos de Ezkerraldea, Meatzaldea y Enkarterri participantes en el programa Actíivate+. El Diario Norte, 01-06-2017.
 - Un plan de educación ambiental en Barakaldo rebaja un 18% el consumo de energía en colegios. Barakaldo Digital, 01-06-2017.
 - Holanda y Argentina se fijan en las políticas culturales y de las pymes. El Correo, 27-05-2017.
 - "En Suecia tampoco hemos alcanzado aún la igualdad de oportunidades para la mujer".
- El Correo, 19-05-2017.
 - Quince empresas de Idaho explorarán oportunidades de negocio en Bizkaia. El Correo, 17-05-2017.
 - Empresas de Idaho buscan oportunidades en Bizkaia. Deia, 17-05-2017.
 - Una delegación sueca visita Bizkaia para conocer sus infraestructuras. Deia, 11-05-2017.
 - Sustapan ekonomiko eta iraunkorraren gaineko jardunaldiak. Hiruka, 02-03-2017.
 - Getxo teje su red de negocio estratégico. Deia, 24-02-2017.
 - 210 participantes en las Jornadas de Promoción Económica Sostenible. Getxoberri, 23-02-2017.
 - Google y la NASA buscan a los emprendedores más disruptivos. Estrategia Empresarial, 01-02-2017.
 - Jornadas de Promoción Económica Sostenible. Getxoberri, 26-01-2017.
 - Getxo analiza sus sectores clave en la economía. Deia, 25-01-2017.



www.bm30.es/prensa

MAIATZAK 4

German Marshall Fund.
Bilbao Metropoli-30 elkarteak.

MAIATZAK 9

ANDREkintzaileari buruzko
informazio-saioa. BEAZ.

Navotaseko (Filipinak)
ordezkaritzaren bisita.
Bilbao Metropoli-30 elkarteak.

MAIATZAK 10

Enpresa Topaketan eta
CEBEK-en Batzar Nagusian.
Euskalduna Jauregia.

Nackako (Suedia)
Bilbao Metropoli-30 elkarteak.

MAIATZAK 11-12

XX. Topaketa: Ebro-poliko
plan estrategikoak. Zaragoza.

MAIATZAK 11

LAGEi eta BMLPPEi buruzko
jardunaldia. Bizkaia Aretoa.

MAIATZAK 15-16-17-18

SKILLS. Taldekako coachinga.
UPV-EHU, UD, MU.

MAIATZAK 16

Ulsaneko (Korea) telebista.
Bilbao Metropoli-30 elkarteak.

Innobasque - Batzar
Orokorra.
Euskalduna Jauregia.

MAIATZAK 18

Emakumea, Berdintasuna &
Ekintzailetza IV. Foroa.
Deustuko Unibertsitatea.

ANDREkintzailea programa:
Helburuak lortzera
orientatzea.

BEAB: Euskaltegien
Azpibatzerdea.
La Bolsa eraikina.

MAIATZAK 19

Ulsaneko (Hego Korea)
ordezkaritzaren bisita.
Bilbao Metropoli-30 elkarteak.

MAIATZAK 25-26

Sormenari buruzko
workshopa.
Sota eraikina

MAIATZAK 25

ANDREkintzailea Programa:
Presentzia publikoa I. BEAZ.

MAIATZAK 26

BEAB: Euskaltegien
Azpibatzerdea.
La Bolsa eraikina.

MAIATZAK 29

World Citiesen jarraipen-
bilera. Bilbao Metropoli-30
elkarteak.

MAIATZAK 30

Uniporteko Zuzendaritza
Batzordea. Uniport.

MAIATZAK 31

Argentinako Enpresa Ertainen
Konfederazioko (CAME)
ordezkariak.

BEAB: Euskaltegien
Azpibatzerdea.
La Bolsa eraikina.

EKAINAK 1

ANDREkintzailea Programa:
Presentzia publikoa II. BEAZ.

AKTIBATU + programaren
jarraipen batzordea eta
eskolen festa.
Barakaldo Antzokia.

EKAINAK 5

Seulgo (Korea) Gobernu
Metropolitarraren bisita.
Bilbao Metropoli-30
elkarteak.

EKAINAK 6

Immigrazioari buruzko
kontseilu lokala. Bilbao
Metropoli-30 elkarteak.

EKAINAK 8

ANDREkintzailea programa:
Zuzendaritza-jarduera
osasuntsua. BEAZ.

EKAINAK 15

Bilbao Metropoli-30en Ohiko
eta Ezohiko Batzar Orokorra
eta Patronatuko Batzarra.
Sota eraikina.

BM30en 131. Zuzendaritza
Batzordea. Bilbao Metropoli-
30 elkarteak

UNEDekin elkarlana.
UNED.

ANDREkintzailea programa:
Egoera zailen eta
negoziazioen kudeaketa I.
BEAZ.

EKAINAK 22

ANDREkintzailea programa:
Egoera zailen eta
negoziazioen kudeaketa II.
BEAZ.

Euronet 50/50 bilera. Bilboko
Udala.

EKAINAK 28

Europako Kontseiluko
ordezkariak. EUDEL.



Asociación para la Revitalización del Bilbao Metropolitano
Bilbao Metropolitarraren Birbizteko Elkarteak
Gran Vía, 45. 48011 Bilbao.

Tel: 944 158 685 - Fax: 944 153 424

Email: info@bm30.es - URL: <http://www.bm30.es>

Facebook: <http://www.fb.com/BilbaoMetropoli30> Twitter: @BilbaoMetropoli

EUSKO JAURLARITZA 1992KO EKAINAREN 9AN
HERRI-ONURAKONTZAT AITORTUTAKO ERAKUNDEA